



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA

2019/06/09

“Betirako ondarea. XX. mendeko hilobi-ondarea”, Enkarterrietako Museoaren kultura-ibilbidea

Domeka honetan, bagilaren 9an, jarduera batek, “Betirako ondarea. XX. mendeko hilobi-ondarea” izenekoak, oso arkitektura-ondare garrantzitsua ezagutzeko aukerea emon dau hiru hilerritan: Balmasedakoan, Zallako La Herrerakoan eta Sopuertako Carralekoan.

Balmasedako hilerriak atari neoklasiko bat eta estilo bereko kapilak ditu, eta azpimarratzekoak dira estilo eklektikoko kapilak. La Herrerakoan atari eta kapila eklektikoak dagoz, 1895ekoak, Ángel Galíndez arkitektoak eginak. Carralekoan, atariaz gainera, aitagarria da 1910eko kapila modernistea, Emilio Otaduy arkitektoak altxatua.

Kultura-ibilbide barri hau, Pérez de la Peña ikerlariak zuzendua, goizeko 10etan hasi da Enkarterrietako Museoan, eta 14:30ean amaitu leku berean, “Enkarterri. 1870-1975. Arkitektura garaikidearen distira” erakusketeari bisita gidatua egin ostean. Ganera, domeka honetarako aukeratutako hilerriak be ezagutzeko aukerea egon da, autobusez joanda.

Enkarterrietako Museoa martiaren 8an hasi zan eskualdeko arkitektura-ondare garrantzitsua ezagutzera emoten “Enkarterri. 1870-1975. Arkitektura garaikidearen distira” erakusketearen bidez. Lehenago, Gorka Pérez de la Peña historialariak lau urtez jardun eban ikerketa-lan bat egiten, eta erakusketea lan horren emaitza da. Erakusketearen osagarri, kultura-ibilbide batzuk antolatu ditu Museoak; lehenengo, erakusketea bisitetako eta, horren ostean, Enkarterriko eraikin berezi batzuk ikusteko. Horrezaz ganera, Museoak bisita gidatuak eskaintzen ditu asteburuetan erakusketea ikusteko, eta horretarako, eguna eta ordua eskatu behar dira aurretiaz.

HURRENGO KULTURA-IBILBIDEA

Urriaren 6a, domekea (Bizkaiko Foru Aldundiak antolatutako Ondarearen Europako Jardunaldiak): “Eliza eta jauregi artean jendea dibertitzen”

Ordutegia eta ibilbidea:

-10:00. Enkarterrietako Museoa. “Enkarterri. 1870-1975. Arkitektura garaikidearen distira” erakusketea bisitetea.

-11:30. San Cosme eta Damian eleizea bisitetea (Bezi. Sopena)

-13:00. Hierro-San Martin jauregia bisitetea

-14:30 Enkarterrietako Museora itzultzea

Jarduerak doakoak da. Beharrezkoa da aurretiaz izena emotea 94 650 44 88 / 94 610 48 15 telefono zenbakietara deituz edo enkarterrimuseoa@bizkaia.eus helbidera idatziz



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

09/06/2019

“Patrimonio para la eternidad. Arte funerario del siglo XX”, itinerario cultural del Museo de las Encartaciones

Bajo el título “Patrimonio para la eternidad. Arte funerario del siglo XX”, la actividad de este domingo 9 de junio ha permitido conocer el importante acervo arquitectónico de tres cementerios: el de Balmaseda, el de La Herrera (Zalla) y el de Carral (Sopuerta).

El cementerio de Balmaseda dispone de una portada y capilla neoclásicas, así como de destacadas capillas de estilo ecléctico; el de La Herrera cuenta con una portada y capilla eclécticas construidas por el arquitecto Ángel Galíndez en 1895, y en el de Carral, destacan además de la portada, una capilla de estilo modernista de 1910, obra del arquitecto Emilio Otaduy.

El investigador Pérez de la Peña ha dirigido este nuevo itinerario cultural. El itinerario ha comenzado a las 10 de la mañana en el Museo de las Encartaciones y ha terminado en el mismo lugar a las 14:30 horas, tras una visita guiada a la exposición -“Encartaciones. 1870-1975. El esplendor de la arquitectura contemporánea”- y tras desplazarse en autobús para conocer los cementerios elegidos este domingo.

El Museo de las Encartaciones muestra desde el pasado 8 de marzo el importante patrimonio arquitectónico de la comarca en la exposición “Encartaciones. 1870-1975. El esplendor de la arquitectura contemporánea”. Para completar esta muestra, que recoge el trabajo de investigación realizado durante cuatro años por el historiador Gorka Pérez de la Peña, el Museo ha organizado itinerarios culturales para visitar primero la exposición y después recorrer algunos de los edificios emblemáticos que atesoran Las Encartaciones. El Museo ofrece además visitas guiadas a la exposición los fines de semana, concertando previamente día y hora con el museo.

PRÓXIMO ITINERARIO CULTURAL

Domingo 6 de octubre (Jornadas Europeas de Patrimonio organizadas por la Diputación Foral de Bizkaia): “Entre iglesias y palacios la gente se divierte”

Horario y recorrido:

-10:00. Museo de Las Encartaciones. Visita a la exposición “Encartaciones.1870-1975. El esplendor de la arquitectura contemporánea”

-11:30. Visita a la iglesia Santos Cosme y San Damián (Beci. Sopuerta)

-13:00. Visita al Palacio Hierro-San Martín (Sopuerta)

-14:30 Regreso al Museo de Las Encartaciones

Actividad gratuita. Es necesaria la inscripción previa en los teléfonos 94 650 44 88 y 94 610 48 15 o a través del correo electrónico enkarterrimuseoa@bizkaia.eus